

Partidu ikusgarria Hegoalde

Futsi Navalcarnerori 7-5 irabazi dio ▶ 3



Giro ederra izan zuten igandean Berastegiko XIII. Ibilaldi Neurturean

155 LAGUN ▶ Eguraldia lagun, 155 mendizalek hartu zuten parte Basurdek antolatutako ibilaldian

GAZTETXOAK ▶ Guraso Elkarteak antolatutako 6. Ibilaldian 33 gaztetxo izan ziren partaide ▶ 6



Mendizale batzuk igandean Berastegiko udaletxeko arkupean diploma jasotzen ibilaldia neurtua burutu ondoren. HITZA

TOLOSA ▶

Hirukide eta Laskorain ikastolako ikasleak, ingurumen biltzarran

Ficoban egiten ari den mugaz gaindiko biltzarran dira partaide ▶ 2



Koldo Lopez eta Luisi Arregi irakasleak. L.MONTES

ANOETA ▶

Ur gordailu berria laster jarriko dute martxan

Egungoaren bikoitza jasotzeko ahalmena izango du ▶ 4

ALEGIA ▶



N.LATABURU

Isabel Mujikaren naturaren irudiak

Jubilatuen tabernan jarri du pintura erakusketa ikusgai ▶ 5

LEITZA ▶

Udalak bi ordezkapen behar ditu ▶ 7

INGURUMENA ▶



Koldo Lopez eta Luisi Arregi, Hirukideko eta Laskoraingo irakasleak, hurrenez hurren. LEIRE MONTES

Ingurumena maite dutelako

Hirukideko eta Laskoraingo ikasle talde bana Ingurumenari Buruzko Mugaz Gaindiko Gazte Biltzarran ari dira, Irunen

LEIRE MONTES

Ingurumena maite dutelako. Garapen jasagarriaren eta bizi kalitatearen alde buru-belarri lanean ari direlako. Horrexegatik ari dira Euskal Herriko hainbat ikastetxe Ingurumenari Buruzko Mugaz Gaindiko Biltzarran. Irungo (Gipuzkoa) Ficoban. Mundu hobe a nahikoa. Eta hori lortzeko lanak eta ilusioak batzen dituelako.

Halaxe, lanpetuta baina gogotsu sumatu zituen HITZAK osatzen Koldo Lopez eta Luisi Arregi. Hirukideko irakaslea da lehena, Laskoraingoa bigarrena, eta Eskolako Agenda 21eko arduradunak biak. Gipuzkoako eta Iparraldeko beste 12 ikastetxeekin batera, beren ikasleekin osatutako lan taldeekin parte hartuko dute gaurtik etzira egingo den Biltzarran. «Tolosaldeko bi ordezkari joatea datu adierazgarria iruditzen zaigu, pozik egoteko modukoak», zioen Lopezek.

Ikasturtean landutakoa jendaurrean aurkeztu ahal izango dute Ficoban. Dena den, Agenda 21eko Eskolako Foroan «herriko ikastetxe guztiak, Samaniego, Hirukide eta Laskorain» ari direla «gogor lanean» azpimarratu zuten: «Ikasturte bakoitzeko gai bat erabakitzen dugu Foroan. Bera da denontzat, eta gero ikastetxe bakoitzak bere irizpideak jarraitzen

ditu». Aurtengoa, *Kalea=Elkargune* izaten ari da lan ildoa.

Izen bereko txostena aurkeztuko dute Laskoraingoei, eta herriko eskolek orokorrean erabakitakoaren eta ikastetxearen zehazki egin dutenaren berri emango dute: gune berdeak, aisialdia... Hirukidekoak, izenburu bera abiapuntuz hartuta, kalea izango dute mintzagai: autoak eta gizakia elkarrekin bizi diren leku gisa aztertuko, eta presaren inguruko hausnarketa egingo dute. Euskaraz jardungo dute Tolosaldeko irakaslea. «Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez izango dira saioak. Dena den, ahal den heinean euskaraz mintzatzea da xedea. Euskaraz da, azken finean, amankomunean duguna».

Ikastetxe bakoitzeko lau ikasle eta irakasle bat ariko dira Ficoban. Biltzarrari ekin eta berehala, gaur bertan, aurkeztu beharko dute beren txostena Hirukidekoak. Laskoraingoei, berriz, bihar iritsiko zaie txanda. Elkarri entzuteko aukerarik ez izateagatik zeuden pentsatzen bi ikastetxetako ordezkariak: «Taldea guztiak hiru lan mahaitan banatzen dituzte, eta ez zaigu multzo berean egokitu. Hala ere, saiatuko gara tartetxo bat hartzen, eta ea elkarri entzutea lortzen dugun».

DBHkoek egingo dute 15-20 minutuko jendaurreko aurkezpena. «LHko 3. zikloko eta DBHko ikasleekin landu dugu

gehienbat proiektua, baina Ingurumen tailerreko lau gazte hitz egingo dute, DBHko 3. mailakoek (15 urte)», azaldu zuen Arregik. Hirukiden, DBHkoak (16 urte) jardungo dute; «haiek izan dira materiala prestatu eta ikastetxe mailako koordinazioa egin dutenak», esan zuen Lopezek. Bien esanetan, «ikasleak urduri daude, ardura handia delako haien Biltzar garrantzitsu horretan aritzea; baina ardura horrek berak harro eta indartsu sentiarazten ditu». Aurkeztu penaren unean beste hainbat ikaslearen babesa jasoko dute, ikuslegotik.

Baiona-Donostia Eurohiriak antolatuko du Ingurumenari Buruzko Mugaz Gaindiko Gazte Biltzarra. «Parte-hartzaile gutxien artean Ingurumenaren eskutitza idaztea da helburua». Baina haratago ere badoa Gazte Biltzarra, «elkar ezagutzera bultzatu» nahi baitu. Hala, Gipuzkoako ordezkari guztiak Zarauzko aterpetxean hartuko dute ostatu hiru egunotan. Eta, aurkeztu gain, tailerrak, txangoak eta bisita gidatuak ere izango dituzte, «elkar ezagutzeko eta harremanak sustatzeko». Biltzarraren beste alde horrekin ere pozik dira bi irakasleak: «Politikaren da beste-tee egindako lanaren berri jakitea. Politika ere jende berria ezagutzeko. Dudarik gabe, esperientzia aberasgarria izango da».

TXIRRINDULARITZA ▶

Jon del Rio 3. Alcobendaseko Klasikoan

Asteburuan Madrilen jokatutako Alcobendaseko Klasikoan korritu du Jon del Rio (Paul Versan) txirrindulari tolosarra. Txukun aritu da, gainera. Hirugarren helmugaratu zen Collado Villalba-Collado Villalba 78,4 kilometro etapan, David Herrero irabazlearen denbora berea. 18. postuan amaitu du Klasikoa Del Riok, Ilderretik 2:07ra. Pavel Tonkovek (LPR) irabazi du proba.

GAZTERIA ▶

Etxebizitza erostean sortzen diren zalantzak

Udaleko Gazteria sailak eta Gazteguneko antolatutako II. Hitzaldi Zikloaren baitan, Emantzipazioaren inguruko saioak hasiko dira gaur. Nora Egaña eta Idoia Goñi Kutzako Etxebizitza zerbitzuko kudeatzaileek *Etxebizitza erosteko sortzen diren zalantzak* azalduko dituzte, 20:00etan, Kultur Etxean. Etzi, osteguna, izango da emantzipazioari buruzko bigarren saioa.

HEZKUNTZA ▶

Adimen emozionalari buruz, Hirukiden

Hirukide ikastetxeko Gurasoen Elkarteak adimen emozionalari buruzko hitzaldia antolatu du. Esteban Vicente psikologoak eskainiko du solaslaldia, gaur, 18:30ean, Hirukide Jesuitinetako 3. solairuan. «Adimen emozionalari buruzko ikuspegi orokorra ematea eta haurren heziketan duen garrantzia ohartaraztea» du helburu saioak.

MENDIA ▶

Santa Teodosia-Larraona, Alpino Uzturrerakin

Alpino Uzturrek Santa Teodosia-Larraona 7 orduko ibilaldia (Araba) antolatu du igandera. Murube mendia (1.128m.) igoko dute bidean. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5. 943 65 27 89). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte, eta besteek 12.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Herialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegietza.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarrendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzu: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxi: 67 04 20

▶ Taxi (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galizaudi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ugarte, M.T. Euskal Herria

46 (Ibarra) 943 67 32 74

Plaza. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldekohitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldekohitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldekohitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldekohitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldekohitza.info

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

Hegoalde-Navalcarnero	7-5
Sailkapena ▶	
1. Femesala Elche	73 puntu
2. Navalcarnero	62 puntu
3. Zaragoza 2002	54 puntu
4. UCAM Murcia	50 puntu
5. Preconte Telde	46 puntu
6. Tec. Mostoles	44 puntu
7. Fuenlabrada	43 puntu
8. Soto del Real	36 puntu
9. Ourense	34 puntu
10. Hegoalde Tolosa	34 puntu

1. Maila A.

Salcedo-Ibarra	4-8
Sailkapena ▶	
1. Candesa Camargo	68 puntu
2. Los Peñucos	62 puntu
3. Cafeteria Atenea	54 puntu
4. Tomas Mingot	49 puntu
5. UPV-EHU	48 puntu
6. Virgen de Vico	46 puntu
7. Albelda	45 puntu
8. Sestaio	42 puntu
9. Ultzama	42 puntu
10. Jarrilleros	35 puntu

11. Soloarte	35 puntu
12. Carnic. Saenz	31 puntu
13. Burlada	31 puntu
14. Ibarra	28 puntu
15. Ribera Navarra	20 puntu
16. Salcedo	11 puntu

1. Maila B.

Durango-Laskorain	7-7
-------------------	-----

Autonomikoa.

Cash Converters-Kokxa	7-4
-----------------------	-----

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa-Trintkerpe	5-0
Sailkapena ▶	
1. Tolosa	76 puntu
2. UPV-EHU	74 puntu
3. Ordizia	63 puntu
4. Real Union B	59 puntu
5. Zarautz	58 puntu

Nesken Liga. Kopa.

Tinta Villabona-Goierri	1-2
-------------------------	-----

Autonomikoa.

Orioko tabernak-Trans. Lakunza	5-1
--------------------------------	-----

Lurraldeko 1. Maila.

Tolosa B-Lengokoak	4-2
--------------------	-----

Lurraldeko 2. Maila.

Lagun Onak-Danena	2-3
Amaroz-Antzuola	3-0
Intxurre-Legazpiko Gazte.	3-7
Sailkapena ▶	
1. Lagun Onak	31 puntu
2. Usurbil	28 puntu
3. Danena	19 puntu
4. Gazteak	13 puntu
Sailkapena ▶	
1. Dunboa	30 puntu
2. Legazpiko Gazte.	21 puntu
3. Hondarribia	17 puntu
4. Sampedrotarra	15 puntu
5. Internacional	14 puntu
6. Eibartarrak	11 puntu
7. Inburre	10 puntu

Sailkapena ▶

1. Amaro	25 puntu
2. Lasarte Oriá	25 puntu
3. Urki	22 puntu

FUTBOL 7

2. Maila A.

Zuriburri- Lanbroa-Dickens	0-3
----------------------------	-----

Sailkapena ▶

1. Lanbroa-Dickens	32 puntu
2. Pub Oasis	31 puntu
3. Cesar Rueda seguros	26 puntu

2. Maila B.

Bar Shanti Kirolak - Nu team	1-2
Sailkapena ▶	
1. Jalgi kafe antzokia	31 puntu
2. Amazkar taberna	31 puntu
3. Trinkete Ibaeta	28 puntu
4. R. Izkiña-Pasaia	26 puntu
5. Fermax-Instalaciones CG	20 puntu
6. Prudey	20 puntu
7. Rotulek.com	19 puntu
8. St. Etienne cafe bar	17 puntu
9. Pub Egarrí	17 puntu
10. Bar Shanti Kirolak	16 puntu

ESKU PILOTA

HITZA TXAPELKETA

Benjaminak.

Galarraga-Otaegi	7-16
Ibarzabal-Tolosa	
Otaegi-Saralegi	16-3
Oiarbide-Navarro	
Mangas-Ibargoien	16-6

Ubarretxena-Noble

Alebinak.

Senperena-Gailurralde	5-16
Jauregi-Arrue	
Zelaia-Labaka	16-4
Artola-Murua	
Eskudero-Jauregi	16-8
Sasiain-Mancisidor	
Gorostidi-Goitia	16-11
Exeberria-Murgiondo	

Infantiak.

Apezteba-Aranburu	18-8
Arrieta-Aizpartite	
De la Sotilla-Dorronsoro	18-9
Irazusta-Jauregi	
Otaegi-Iraola	18-1
Josu-Daboz	
Sukia-Arzelus	18-1
Oiarbide-Garmendia	

Etorbizuneakoak.

Aranzabe-Mujika	8-22
Portu-Orena	
Elurbe-Garmendia	22-10
Urbixpia-Landaribar	
Aspe-Orbegozo	22-12
Txaurrea-Irezaburu	

ARETO FUTBOLA ▶

Puntu batekin itzuli da Laskorain Bizkaitik

Zazpina berdindu zuen Durango taldearen aurkako partida

ERREDAKZIOA

«Duela lau jardunaldi lez, Iñaki Egizabal, Tolosaldeko Paul Newman izenez ere ezagutua badenaren mutilek bolada ikaragarria zeraman Sasikoa liderrari balazta sakatu zioten 16. garaipena jarraian lortzea eragotziz. Zazpi zenbakia mistikotasun eta kuriositatez inguratua egon ohi da; zazpi ziren ipotxak, zazpi egun behar izan zituen Ahalguztidunak mundua eta bere biztanleak eratzten, zazpi dira Euskal Herria osatzen duten probintziak eta zazpina gol sartu zituzten durangarrek eta Ikastolakoek lehenengo igande goizean jokatu zuten partidua ikusgarrian». Modu horretara egin dio Laskorain taldeko jokalaritza Mikel Altunak partidaren kronika HITZARI.

Hiru puntuek berebiziko garrantzia zuten etxekoztat Nazional A mailara txartela ematen duen lehen postuan jarraitzeko ez ezik, bigarren sailkatu Piti Pascualekiko aldearengatik aukera paregabea baituzuten basuarritarren larunbateko berdinketaren ostean. Indartsu ekin zioten garaipenaren bila lehenengo minutu-

tik, laster aurreratuz markagailuan 2-0eko kezkarriarekin.

«Telletxea kadetea eta Amatriain arroka arduratu ziren kezka horiek ez ezazu, eta partiduko lehenengo berdinketa lortzeaz. Durangarrak aurreratu ziren berriz, baina aldageletara lehenengo aldiz erretiratu aurretik, Saldias taldeko hauspo eta kapitainak bere lehena, horitxoen hirugarrena lortu zuen, bigarren berdinketa ezarritik. Hiruna. Jokalaritza guztien ezpatek zutik jarraitzen zuten». Bigarren *asaltoan* Ikastolakoek eman zuten iniziatiba markagailuan, eta partidaren azken arnasaldira arte denboraldi honetan bigarren liderra etzango zuten itzaropenarekin aritu ziren horitxoak beste taldeetatik bereizten dituen amorrua eta griña arma gisa erabiliz. «3-4koa Saldias asekaiztasinatu zuen. Ondoren Amatriain zaldun fidelaren txanda iritsi zen, goizeko bere bigarren sareratzetza eskuratu. Bizkaitarek alde murriztu zuten. Lau eta bost. Barriola puxika margolariak golarekin ia astebururo izaten duen hitzorduaren ez zuten hutsik egin. Tolosarren-tzat seigarrena».

Bizkaitarek ez zuten amore eman, ordea, eta partidako hirugarren berdinketara iristeko gai izan ziren jarraian sartutako bi golen bitartez. Bi entrenatzaileen guda taktikoa ere ikusgarria zen. Egizabalek zonakako defentsan oinarritu zuen bere estrategia. Apustua ezin hobeto irtengo zitzaioala ematen zuten «Gil errekaiztasun beste behin horitxoak aurreratu zituenean, baina oso ongi altu batekin konformatu behar izan zuten gure Marcelo Lippi partikularrak, Sasikoak zazpinakoa egin baitzuten partida bukatzeko bi minutu falta zirenean».

Laskorainen historia gogogangarrian urrezko beste orrialde bat idatzi zuten 2005eko maiatzaren 8ko igande goiz eguzkitsuan Iñaki Egizabal entrenatzaileak, Javier Saldias delegatuak eta Alonso, Amatriain, Arregi, Barriola, Domentxe, Gil, Saldias, Telletxea eta Zubillaga jokalariek. Lortutako puntu bikaina belauneko arrerko ligamentu gurutzatua eta kanpo meniskoa hautsita dituen eta zenbait hilaibetean jokalekueztatik urrun egon behar duen Altunari eskaini zioten. «Mila esker mutillak!».

ARETO FUTBOLA ▶

Partidu ikusgarria jokatu du Hegoalde Berazubindu

7-5 irabazi zion larunbatean sailkapenean bigarren den Madrilgo Futsi Navalcarnerori

IRATXE ETXEBESTE

Garaipena zaila izango zelakoan ziren Tolosakoak Berazubindu Madrilgo Futsi-Navalcarnerorekin aurka jokatzekoan zirenean. Sailkapenean nagusian oso postu ezberdinetan dira bi taldeak, izan ere. Hegoalde ez du lehen postuetara hurbiltzeko zereginek, baina aurkariak bigarren daude, eta oso beharrezko zituzten hiru puntuak. Bada zaila izan zen neurketa, ez bairik gabe.

Etxekoak gaintek daudela erakutsi nahian irten zuten kantzara Navalcarnerokoe, eta Hegoalde lan zaila jarri zion Madrilgo taldeari. Maila handiko golekin, geratzea ezinezko diren horietakoekin, joko azkarrekin eta etengabeko lekualdatzeekin egin zieten aurre, eta besteek eginahalak egin zituzten jokaldiak aldatzeko. Ezin, ordea.

Bigarren zatiko 10. minuturako bost falta adierazi zizkien epaileek Hegoaldeko epailek, eta atezaina jarri zuen jokoan Agotek. Hari gola sartzen zioten bakoitzean aurkariaren sairela zulatzen zuten tolosarrek. Ikusgarria izan zen larunbateko neurketa. Aspaldian Hegoalde ingandako onena.

HEGOALDE ▶ 7

NAVALCARNERO ▶ 5

Hegoalde. Nerea Arana, Miriam Arana, Isa Barrio, Nerea Salazar eta Maider Lopez; Ederne Agirretxe, Itziar Aldezabal, Esther Videra, Ane Larrañaga, Gemma Zelaia, Arrate Martinez eta Naiara Mayo. Entrenatzailea: Maite Argote. **Futsi Navalcarnero.** Raquel Calvero, Patricia Chamarro, Fabiana Ribeiro, Leticia Sanchez eta Eva Menguan; Vanesa Romero, Silvia Fernandez, Clara del Pino, Alejandra Fernandez, Conchi Gines. Entren.: David Pasero. **Golak.** 1-0: Lopez (2m.); 1-1: Chamorro (9m.); 1-2: Ribeiro (17m.); 2-2: Lopez (17m.); 3-2: Agirretxe (25m.); 4-2: Lopez (25m.); 5-2: Salazar (31m.); 5-3: Ribeiro (34m.); 6-3: Barrio (36m.); 6-4: Ribeiro (36m.); 7-4: Barrio (38m.); 7-5: Fernandez (39m.). **Arbitroak.** Jose Huerta, Jose Manuel Sobaler eta Daniel Dos.

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

Ur gordailu berria 2006ko hasieran jarriko da martxan

Egun dagoen ur biltegiaren bikoitza baino gehiago jasotzeko ahalmena izango du; ia 730.000 euroko aurrekontua du



Ur biltegiaren lanak otsailean hasi ziren eta dagoeneko kanpoko hormak altxatu dituzte. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Datorren urte hasieratik aurrera Anoetako ur gordailu berria izango du. 1970ean eraiki zen oraingoa eta horrek baino zabaleria handiagoa izango du, eta «egungo biztanleei zein gerokoei ur horniketa hobea eskainiko die», azaldu du Udalak. «Honela amaitutzat emango dira 2003tik aurrera bere egiturako ontzietan agertu ziren pitzaduren ondorioz oraingo gordailuak izan dituen arazak».

Arazo horiek kokapen oinarrian izan diren lur mugimendu eta luizien eraginez sortu dira. Ondorioz ontzietako bat erabat ezgaitua geratu zen eta egoera normalean 600 m³-

erantzun gaitasuna edukizetik 300 m³-tara gutxitu zen.

Hasieran, 2003ko urteko lehen hilabeteetan, giltzen etxola botazera erabaki zen pitzaduren ondorioz, egoitza horrek zitu ten instalakuntzetan (koadro elektrikoan eta klorazio sisteman), eta baita ere sarrera zein irteerako hoditeria sisteman eragin zuzena izanaz. Ondorioz herriko ur horniketa egoera larrian geratu zen eta inguru batzuek besteak baino gehiago.

Egoera honen aurrean klorazio sistema eta kontrolerako behin-behineko etxola bat ezarri zen. Egoera benetan konpondu ahal izateko Udalak 2003ko udan, beste erakunde batzuen partaidetza eskatuz, tajuzko azterketa baten beha-

rra planteatu zuen. «Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundia partaide zuzena izatea lortu du, eta honek ordainduko du gordailu berria, hauxe baita benetan anoetarrei ur horniketa egokia ziurtatzeko ikusi den aukera bakarra», azaldu dute Anoetako Udaletik.

Arazaoren konponbidea

2003ko irailean udal arduradunak jabeturik Anoetako ur zerbitzuaren larritasunaz, Injelan enpresako teknikariek bildu ziren. Ikusirik pitzadurak eta lur azpiaren mugimenduak areagotuz zihozazela eta ezkerreko ontziaren hondatze larria, gordailu osoa aldatzeko proposamena egin zuten.

Zentzu honetan kokaleku berria, ezaugarri teknikoak, ontzien gaitasuna, funtzionamendua eta abarrei buruzko ikuspuntuak baloratu ziren. Aipaturiko lur mugimendu edo luiziak zirela eta lur azpiaren azterketa geoteknikoa egitea erabaki zen, leku berri batera joan edo bertan geratzera erabaki ahal izateko. Beharrezkoak ziren zenbait argibideterako Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ziren, batez ere eskualdeko ur horniketa sarean gordailu berriaren kokapenak izan zitzakeen eraginengatik.

2004ko abenduan Foru Aldundiak azken proiektuari oneritzia eman zion. Aurririkusitako aurrekontua 727.795 eurokoa da, eta lanen bukaera 2006ko hasierarako izan daiteke. Otsailean ejekuzio lanak hasi ziren, sARBIDEEN prestaketak eta lur zorua erabilpeneko zulaketak eginaz.

Ezaugarriak

Ur gordailu berriak bi ontzi izango ditu, bakoitzak 13,5 metro luzean eta 13,5 metro zabaleran izango dituelarik. Horrek zein teilatua hormigoi armatuzkoak izango dira. Gordailuan urak izango duen altuera 5 metrokoa izango da, beraz 1.400 m³ gordetzeko ahalmena izango du guztira, 700 m³ ontzi bakoitzean, oraingo ahalmenaren bikoitza baino gehiago, gaur egun soilik 600 m³ gorde baitezkeen, etorki zuneko beharrak erabat bermatuak geratzen direlarik.

Udalerriko ur horniketa hiru ubide independentetik banatuko da. Bi ubide Anoetako hegoalderako eta inguru industrialetarako izango dira, eta besteak herrigunea hornituko du. Gordailuak ura bi lekutatik jasoko du: alde batetik Hernaldeko erreka-erretatik, harleku nagusi gisa, eta bestetik Aixibar-ko iturritik. Gerora begira prestatua geratuko da Ibiurko urtegitik etor litezkeen urak jaso ahal izateko.

VILLABONA ▶

Begiraleak behar ditu Udalak Udandjolaseanera

Villabonako Udalak uztailean antolatzen duen Udandjolasean udaleku irekietan begirale lanetan jarduteko izena emateko epea zabalik dago. Udalekuak uztailean 4a eta 22a bitartean egingo dira, 3 eta 10 urte bitarteko haurrek bilduz. Begiraleei 700 euroko soldata emango zaie. Izena emateko euskaraz ondo jakitea eta 18 urte betetarik izatea nahikoa da, eta epea maiatzaren 20a arte da. Aukeraketan kontuan izango da: begirale titulua izatea, esperientzia izatea eta billabonatarra izatea.

ANOETA ▶

Festa alternatiboen batzordeko bilera

Festa alternatiboen batzordeak bihar egingo du bilera, 19:00etan udaletxean. Bestalde, interesa duenarentzat, Itzuli taberna aurkitu ditzake festa alternatiboko bazkari, afari eta ekintzetan izena emateko zerrendak.

ANOETA ▶

Ikastaroak enpresa txikiarentzat

Anoetako KZgunean mikro-errepresentzako prestakuntza ikastaroekin jarraitzen dute. Gaur, 16:00etatik 18:00etara, *Komunikatu hornitzaile eta bezeroekin posta elektronikoa bidez* ikastaroa emango da. Bihar, 13:00etatik 15:00etara, *Ikasi dokumentuak digitalizatzen eta identifikazio elektronikoko txarteak erabiltzen* ikastaroa. Etzi, 16:00etatik 18:00etara, *Bilatu produktu, prezio eta lehiakideak Interneten du izenburua* ikastaroa.

ANOETA ▶

Hitzaldia osteoporosiari buruz biltokian

Alkartasuna biltokian hitzaldia egingo da bihar, 18:30ean, Begoña Tabernaren eskutik. *Osteoporosiari buruz* hitzaldia emango da. Ondoren meriendaxoa egingo da.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. 104 m² erabilgarri. 4 logela, 2 balkoi. Berrituko. Ikuspegiek. Trasteleku. Etxesagasti. 943 696 856.
Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lurra, garajea eta trasteleku. Etxesagasti 943 69 68 56.
Irura. 3 logelako eta 2 bainugelako etxe erdiberrita. Polita. Egoera ezin hobea. Garajea eta trasteleku. 49.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Zizurkil. Erabat eraberrituko

etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balikoirekin. 33.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Villabona. 72 m². Egonela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.
Villabona. 3 logelako etxebizitza polita guztiz eraberritua. Kanpoaldera. Trasteleku. Garajea. Etxesagasti. 943 696 856.
Zizurkil. 3 logelako etxebizitza. Erdi

eraberritua. Igogailua. Trasteleku. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Zizurkil. 95 m²-ko etxebizitza ederra. 3 logela. Kanpoaldera. Balkoiak. Egoera onean. Etxesagasti. 943 696 856.
Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Itxaron zerrenda dugu.

ALEGIA ▶ KULTURA



Mendia. Euskal Herriko paisaiak inspirazio iturri dira Isabel Mujika margolariarentzat. NOELIA LATABURU



Itzalpean. Emakume bat zuhaitzaren azpian. N. L.



Itsasoa. Kostaldean ere izan du zer margotu. N. L.



Natura hila. Loreak eta aulkiak ere margotu ditu Mujikak. N. LATABURU

Naturarekin dantzan

Isabel Mujika tolosarraren olioizko pinturak ikusgai daude, maiatzaren amaierara bitarte, jubilatuen tabernan

NOELIA LATABURU

Alegiako jubilatuen tabernak erakusketa berria estreinatu du. Bertan, eta hilabete amaierara bitarte, Isabel Mujikaren olioizko 13 pintura jarri dituzte.

Hormetan ikusgai jarri diren Isabel Mujikaren olio hauen guztien artean paisaiak eta natura hilako margoak dira nagusi. Hauek erosteko aukera ere izango dute ikusleek; 60 eta 300 euro bitartean daude mar-

goen prezioak. Hauexek dira, banan-bana, hamahiru koadroak: *Errota, Itxaronaldia, Donostia I, Donostia II, Euskal sukaldea, Elurra, Txindoki, Loreak* (natura hila), *Loreontziak, Aulkiak* (natura hila), *Paisaia I,*

Paisaia II eta *Txalupak*. Isabel Mujikak Euskal Herriko naturan aurkitzen du sarri bere inspirazio iturria. Hori dela eta, Donostiako txokoetan edo barnealdeko herrietako ohituretan eta mendietan oinarritzen da bere lanak margotzerakoan. Mujika tolosarraren esanetan, «umea nintzenetik izan dut artearekiko grina». Hala ere, gazteetan zaletasuna zela-eta aritzen zen margoan, izan ere «garai haietan 14 urterekin hasi behar zen lanean»; duela urte batzuk, ordea, margolaritza bihurtu du bere ogibide.

Alegiako jubilatuen tabernako erakusketan 2004. urteko koadroak topa daitezke, bai eta hamar urte dituzten margoak ere. «Garai ezberdinetan eginko lanak» erakustea du gogoko Mujikak eta bere helburu nagusia bere artea ikusgai jarzea da; honekin batera, «baten bat saltzea lortzen badut, hobe», gaineratzen du.

Hamaika erakusketa egindakoa da tolosar hau, batik bat Tolosaldean eta Donostian. «Aranburu jauregian ere eskegi dituzte nire lanak», esan du Mujikak pozik.

urik onena, alferrik galtzen ez dena

Holtz/Noni www.kutxasocial.net

gizarte ekintza

ingurumena

Igo zaituzte kutxaBusera, eta ingurumenarekin zintzoago jokatzeko eta eguneroko bizitzan ura sarrastean erakutsiko ditugu. Era dibertigarri, biki eta interaktiboan.

Tolosan Maiatzak 9tik 13ra **Foruen Plaza**

www.kutxa.net

kutxa

IBARRA ▶

Ibartarrak ez daude amore emateko prest areto futbolean

4-8 irabazi diete Salcedori; hala ere, maila mantentzea nahiko zaila dute

I.TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldeari maila mantentzea nahiko zaila jarri bazaio ere, argi dago oraindik amore ez duela eman. Eta hau argi geratu zen larunbatean Colindres-en Salcedoren aurka jokatu zuen partiduan, hasiera hasieratik irabaztera ateratzaileekin ibartarrak, bazekitelako galdu edo berdinketa lortuz gero matematikoki mailaz jaitsiko zirela.

Ibarra presio handia eginez hasi zen, baina Salcedo izan zen markagailua estreinatzen lehena. 3. minutuan izan zen, aurkako atezainak luze ateratzen zuten baloia eta Ibarra jokalariek ia ohartu gabe sartu zuten Mikel Sanzen atean. Ibarra gogor jarraitu zuen hala ere eta 8. minutuan lortu zuen berdinke-taren gola. Ibartarrak baloiaren jauna eta jabe ziren, baina golak falta ziren. 18. minutuan kornurretik 1-2koa sartu zuten, eta atsedendira horrela iritsiko ziren.

Bigarrena hasi eta berehala sartu zuten ibartarrek hirugarrena. Laugarrenean Kamiok berriro sartu zuen 1-4koa. Eta hurrengo bi golak Salcedok egingo zituen. 3 minutu geratzen zirenean 3-5koa sartu zuen Ibarra. Ondorengo bi minutuan beste bi sartu zituzten ibartarrek, eta Salcedok laugarrena egin zuen. Partida amaitzeko minutu bat falta zela Sanz atezainak penalti bikoitz baten bidez egin zuen zortzigarren eta azken gola.

BERASTEGI ▶ MENDIA

Giro ederrean burutu da Berastegiko XIII. Ibilaldi Neurtua

155 pertsonak amaitu dute Ibilaldi Neurtua; gaztetxoek ibilaldian 4tik 11 urte bitarteko 33 parte-hartzaile izan dira

IÑIGO TERRADILLOS

Giro ederrean, eguraldiak lagundurik egin zen herenegun urtero Basurde elkarteak antolatzen duen eta aurten 13. edizioa izan duen Berastegiko Ibilaldi Neurtua.

7:00etan Berastegiko plaza-tik abiatuta 155 pertsona izan ziren 30 kilometroko ibilbidea burutu zutenak, izena eman zuten gehienak, beraz. Berastegi, Larte, Ulizar, Plazaola, Ipuliño, Gorosmendi eta San Lorentzotik igaro ziren azkenean Berastegiko plazan amaitzeko. Ibilbidean zehar 5 kontrol zeuden, eta bakoitzean gehienezko denbora markatua zegoen. Gune bakoitzean parte-hartzaileen denbora kontrolatzen zuten antolatzaileek, baina izan zen kontroletatik igaro gabe eta gutxieneko denborei kasurik egin gabe norberaren marka hobetzea baino ez zutenak izan helburu bezala.

Gurutze Gorria egun osoan izan bazen ere, ez zela inongo gora beherrerarik izan azaldu dute. Orohar, beraz, oso ondo irten zela dena adierazi dute antolatzaileek, eta eskerrak eman dizkiete laguntzaile guztiei.

Txikien parte-hartze handia

Basurde elkarteak antolatzen duen Ibilaldi Neurtuari Guraso Elkarteak antolatutako gazte-txoentzako ibilaldia gehitzen zaio. Aurten seigarren aldiz antolatu dute eta 4 urtetik 11 urte bitarteko 33 parte-hartzaile izan dira gurasoek lagundurik.



Ibilaldia egin eta gero indarberritu beharra zegoen. HITZA



Gaztetxoak diploma eta kamiseta jasotzen ibilaldia amaitzean. HITZA

9:30ean abiatu ziren plazatik San Lorentzora, eta handik El-duain eta Berastegiren arteko Mugara, berriro ere plazan amaitzeko. Helduen kasuan bezala iristean diploma eman ziz-

kieten denei eta baita elastikoak ere. Plazara iristean indarberritu beharra zegoen eta horretarako gune bakoitzean bezala, zain zuten jatekoa eta edatekoa.

GUTUN@K ▶



Maiatzaren 3ko bilkurari buruz

Pasa den asteartean, maiatzak 3, Belauntzako udaletxean egindako udalbatzarraz TOLOSALDEKO HITZAK egindako kronikaren inguruko hainbat ahanztura argitara eman nahi ditugu.

Lehen, herriko tabernaren itxiera dela eta, Edurne Arbelegi alkatearen hitzak aipatzen badira ere, bertako arduradun izandakoak ere hitz egin zuen bere bertsioa emanaz. Honetaz, aipamenik ere ez. Bestalde, sententziaren berri ez zuela izan dio kronikak, bada, Arbelegi berak irakurri zuen sententziak zioena.

Bigarrena, Herri Ekimenaren erreferendum proposamena. Ez dira aipatzen zein den proposamena ez eta alkateak ez onartzeko emandako arrazoiak: Belauntza Ur Kontortzioan jarraitzea ala ez (ikus TOLOSALDEKO HITZA 2005-03-11) erabakitzeko galdeketa egitea proposatu zuen Herri Ekimenak. Ezezo erantzuna ematearen oinarria lege espainolaren barruan egiten duela lana izan zen alkateak emandako erantzuna.

Hirugarrena, parte hartzeko txanda iritsita, bakarrrik bere hitzak/garrasiak eta bere lagunena entzutea gus-tatzen zaion Edurne andreak ez zion inori behar bezala hitz egiten utzi, hitza kendu zuen eta zenbait hitz egiten ere ez zion utzi.

MANU AZKARATE (SUSTRAIAK HERRI PLATAFORMA) ▶ BELAUNTZA

OHARRA ▶

Tabernako arduradunak kalte ordainak eskatu zituen taberna itxi izanagatik. Horiek ordaindu behar zaizkiola onartu dela jakinarazi zuen alkateak maiatzaren 3ko ohiko bilkuran, hala ere, zenbatekoak izango diren ez dela oraindik zehaztu azaldu zuen.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

A-15 autobiak 10 urte bete ditu; izan al du eraginik zure eguneroko bizitzan



ONURAGARRIA ▶ KALTEGARRIA ▶ EZINBESTEKOA ▶ EKONOMIAN ERAGINA ▶

LEITZA ▶ GIZARTEA

40.355 kilo zabor handi bildu dira 2004 urtean

Hileko 2. eta 4. asteazkenetan egiten dute zabor hauen bilketa herriko etxeetan

J. ASTIBIA

Iaz Leitza 40.355 kilo zabor handi bildu ziren eta hauetik, 12.495 kilo berreskuratu ziren, uztailean horretan hasi zirenetik. Hauexek dira, orain aurrekoan Hitzak jaso dituen datuak, udaletxetik ailarazi zaien informazio orriaren arabera. Aipatzekoa da lehenengo urte osoko bilketen datuak daudela jasota, baina zaborrak bildu, hala egin bazituzten ere, berreskuratzen uztailetik aurrera hasi zirela, izan ere, etxez etxe jasotzen or-

duan hasi baitziren Emauseko Traperoak. Ordu arte, kalean edo poligonoan pilatuta egoten baitziren traste handiak, beren berreskurapena ezinezko eginez. Horrela, epe horretan jasotako materialetatik %17-95 bitarteko tartean lortu da berreskurapena, jasotako gaien kalitatearen arabera.

Bestalde oroitarazi nahi izan dute, zerbitzu hau hilabete 2. eta 4. asteazkenetan eskaintzen dutela traperoek, bihar da eguna, beraz, baina aurretik 012ra deitu behar dela, datuak emanez.

PILOTA ▶

Herriarteko lehen saioan, berdinketa Lizarrarekin

J. ASTIBIA

Larunbatean jokatu ziren Leitzako Amazabalen, Herriarteko Txapelketeko lehen partiduak, hain zuzen ere, Leitzako Aurrera eta Lizarrako San Miguelen artean eta jardunaldia, berdinketarekin bukatu zuten. Lau partidu jokatu zituzten, maila desberdinetakoak, eta bina irabazi zituzten. Leitzaldekoek garaipena, infantiletan eta gazteetan lortu zute-

larik. Lortutako tanto kopuruari dagokionez, ordea, Lizarraldekoek gehiago eskuratu zituzten, 65, etxekoek baino 5 gehiago.

Bestalde, gaur 20:00etatik aurrera jokatu den Elgetako txapelketako saioan, Ibai Bengoetxea leitzarra ari beharra da, jaialdiko bigarren partiduan. Atzo bertan berak esan zigunez, «hara joaten naizenean» jakinen omen du zeinen aurka ariko den.

LEITZA ▶ UDALA

Udalak bi lanpostutan ordezkapenak egiteko deialdia egin berri du

5 hilabeterako, administrari eta zerbitzu anitzetako langile bana hartu nahi ditu, behin behineko lan kontratuarekin



Epe baterako, bi lanpostutako ordezkapenak egiteko, lehiaketarako deialdia egin berri du Udalak. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Leitzako Udalean bi lanposturen deialdia egin dutela jakitera eman berri dute bertatik: ofizial administraria bata, zerbitzu anitzetako langilea bestea, bi udal langileren ordezkapenek dirauten bitarterako.

Horrela, bi lanpostuetarako, «5 hilabeterako behin behineko lan kontratua» eskaintzen du, eta ordezkapenetarako lan poltsa eratu dela ere iragartzen da, helerazitako deialdiko oinarrietan.

Ofizial administrariaren or-

dezkapena egiteko, «Lanbide Heziketako II edo bakiokidearen» tituluaren jabe izan behar omen da eta C mailako soldata izan omen du. «Curriculum osatua», hilaren 27ko 13:00 etarako aurkeztu behar omen da; Zerbitzu anitzetako langilearen lanposturako, berri,

«Graduatu eskolarra edo baliokidea» omen da beharrezko, eta D mailako soldata eskaintzen dute. Dokumentazioa aurkezteko epea, hilaren 23ko 13:00etan bukatzen da, kasu honetan. Bi lanpostuetan euskarara jakitea guztiz beharrezko da.



Leitzan, Maiatzaren 22an HERRI KONTSULTA: Leitzan harrobirik bai ala ez?

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela

eta bainugela. Berokuntzarekin.

Egoera onean.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trastelekua eta garajearekin.

Berrobi. Pisu ederra 3 logela eta 2 balkoierekin. Dena kanpoaldera, eguzkitsua.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan.

Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe atxikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria,

ikusteko modukoa!!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai. Terraza eta lorategiarekin. Ikusgarria!!!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!!!

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikaina.

Tolosa. Nagusia. Pisu polita 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin. Berokuntzarekin.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berrituko igogailuarekin.

Tolosa. Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta 2 bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain. Estreinatze, erabat berritua izan

ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin!!!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. 124 m²-ko etxebizitza konpontzeko garajearekin.

Tolosa. San Frantzisko. 46 m²-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxe-ondo. Pisua garajearekin. Pisua 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²-koa, karabantentzat egokia.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Adimen emozionalari buruzko hitzaldia 18:30ean Hirukide Jesuitinak ikastetxeko 3. solairuan, Esteban Vicente psikologoaren eskutik. Guraso Elkarteak antolatuta.
Tolosa. Kutxa Etxebizitzako Nora Egaña eta Idoia Goñi kudeatzaileek *Etxebizitza erosterakoan sortzen zaizkigun zalantzak* hitzaldia emango dute, gazteentzako hitzaldi zikloen barruan. Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Turismoa Tolosaldean jardunaldiak: Turismoa eta hirigintzaren arteko erlazioa. Jose Maria Ezkiaga arkitektoa da hizlaria. Kultur Etxean, 18:30etik 21:30era.

MENDIA

Tolosa. Amaroako auzo elkarteak Araxesko VII. Mendi Itzulia antolatuta du iganderako. Izen-ematea, 637 18 77 48 (Jose Luis) edo 656 00 89 57 (Jose Mari) telefonoetan, auzoetxe@kzguna.net elkartearen edo egun berean.

Tolosa. Aralarko Adiskideak elkarteak Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa antolatuta du larunbaterako. 20 km eta 1.000 metroko desnibela dira. Izen-ematea, Tolosaldean Tourren (Santa Maria plaza, 943 69 74 13) 10 eurotan.

Tolosa. Santa Teodosia-Larraona (Nafarroa) mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturrek iganderako. Irteera Gorosabeletik. Zazpi orduko ibilaldia da. Murube (1.128m) mendia igoko dute. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea. 943 65 27 89).

Villabona. Aizkardikoek antolatuta Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoaren baitan, Dima-Udalaitz-Bergara irteera egingo da igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo Aizkardiren lokalera azaldu ostegunean 21:00etatik 22:00etara.

ZINEMA

Tolosa. *Habana blues.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

Erlojua, berriro atzeraka

TOLOSA ▶ Txinparta elkarteko erloju berezia berrinauguratu dute; bere historia eta Jose Zubillagaren bizitza gogoratu zuten Garmendiak eta Letamendiak

JOXEMI SAIZAR

Txinparta elkartearen 75. urtemugako ekitaldiekin jarraituz, larunbatean elkartearen erloju bereziaren berrinaugurazioa egin zuten.

Ordulari berezia dute Txinpartan: atzeraka dihoa eta esferu mugituta dauka, normalean hiruak jartzen duen tokian hamabiak jartzen du. «Etxera berandu joateko aitzakia izan da askotan», gogoratu zuten hizlariak ekitaldian. 1933an egin zuten Jose Zubillaga bazkideak eta orain Luis Orte bazkideak berriro eta txukundu du.

Juan Garmendia Larrañaga etnografoa eta Ander Letamendia sendagilea izan ziren hizlariak, biak bazkideak. Erlojuaren historia eta Jose Zubillagaren —semea Jon han zen— bizitza azaldu zuten. «Alturan kokatuta dagoelako, erlojuak 1953ko uholdeak gainditu» zituela gogoratu zuten Garmendiak. Zubillaga Bedaion jaio eta bi anaiekin erremontari lanetan aritu zela azaldu zuten. Aiz-Orratz eta Gure Txokoa elkarteentzat beste bi ordulari egin zituela esan zuten. Zubilla-



Berrinaugurazioaren une bat, hitzaldien ondoren ordubata jotzerakoan mikeletoa atera zen. J. SAIZAR

ga «gizon ona» eta «lagunen laguna» izan zela erantsi zuten.

Letamendiak erlojua «museoko objektu» ez bihurtzea nahi zutela eta horregatik konpondu dutela azaldu zuten. Orte erlojulariak ere egindako lanaren azalpen tekniko batzuk egin zituen. Txistulariek San Joan zortzikoa jotzen zuten bitartean, ordubatak jo eta mike-

letea atera zen. Ondoren, mokatutxo bat izan zen bildutako guztientzat.

Erremonte partidak

75. urtemugaren egitarauarekin jarraituz, hurrengo astean pilotarekin erlazioan atutako bi saio izango dira. 19an, osteguna, Xabier Euzkitzek *Pilota ber-*

tsotan hitzaldia emango du. Oier Zearra pilotaria aurkezle duela. Ostiralean, hilak 20, Zerberio II.a eta Altuna I.aren arteko desafioa eta beste bi erremonte partidak izango dira Beotibarren. Sarrerak salgai daude jada 10 eurotan Asteara, Triangulo, Fronton, Iskiña, Usabal, Elduain eta Amezketako tabernetan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Txoperena, mendira igotzeko kamioia behar al duk?



URTE ASKOAN

Julen Jauregi (Belauntza). Gaur 6 urte. Zorionak eta muuxu handi bat ebekoen partetik.

HITZA,
zorion agurren
tarte

Mesedez,
argazkia bi egun
lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA